

AMETSARENAK

Aitor Albistur

BART AMETS EGIN NUEN

Bart amets egin nuen

injustiziaz beteriko munduan justizia gailentzen zela,
presorik gabeko presondegiak turisten bisitalekuak zirela,
zabu hutsik ez zegoela herriko parkeetan,
arrazakeriaren paleta kolorerik gabe geratu zela,
gerrarik nahi eza zela bakearen sostengua,
tragediak ahazteaz gogoratzen ginela,
une onak gogoratzeaz ez ginela ahazten,
gosea hiztegietatik desagertu zela,
globalizazioaren globoa hustu zela,
garapen jasangarririk jasan beharrik ez zela,
porrotik gabeko garaipenak zeudela.

Bart amets egin nuena

darabilt buruan bueltaka,
heriotzaren korridorean bost urte pasa dituen presoak
akabatuko duen injekzio hilgarriaren abiaratze sistema
martxan jartzen duen botoi gorria sakatzear nagoela.

Gobernadorearen ametsek bakarrik eten dezakete amesgaizto hau.

Gobernadorearen ametsek, eta alboan dudan telefono gorriaren txirrinak.

BETI GAZTE

Ez zait ilerik urdinu denboraren joanean,
gerrikoan ez dut zulo berririk egin behar izan,
ez dago zimurren arrastorik nire azal leunean,
nire bisaiari alaitasuna dario,
konfidantza hedatzen du nire begiradak.

Beti bezain eder nago,
beti bezain gazte.

Ispiluan ikusi dudana, ordea,
ikusi nahiko nukeenaren ametsa besterik ez da.
Edo, bestela, Dorian Gray naiz.

LUXU TXIKI GUZTIAK

7

urte daramatza ametsak

gure etxeko bazter guztiak zokomiatzen.

356

bider eskaini diogu gure aterpea,

jakirik gozoenak,

egongelako besaulkirik erosoena,

dauzkagun luxu txiki guztiak.

2

aldiz egon da gure familiakoa bihurtzekotan.

Ia, ia, baina, ez dugu nahi genuenik jadetsi.

Gaur, ilunabarrez,

357. astez,

loteria-ontziko bolatxoan konplota pairatu dugu.

Ametsak berriz ere alde egin duen arren,

esperantza gurekin jesarri da

eta, beste astebetez,

gure luxu txiki guztiak eskaini beharko dizkiogu.

IMREREN AMETSA

Arbi zopaz elikatzen da

zopetarako ere balio ez duen nire gorputz hezurtsua.

Zamaketari lanetan narabilte,

nire gabeziak ere ezin garraiatu ditudanean.

Tuberkulosia eta tifusa eragin dizkiote nire gorputzari,

zientziaren izenean,

baina, gose eta nahigabe izurriak dira

Buchenwalden hedatu direnak.

Infernutik haratago dagoen konzentrazio-esparru honetan

amets egiten dut egunero Auschwitzera naramatela

eta gas-ganberan itotzen dutela nire arima.

Hori besterik ez bainaiz, arima galdu bat,

pertsona izateari aspaldi utzi bainion.

ALABARI

Amets egizu zelai berde amaigabeekin,
tximeleta koloredunekin,
egunsentiko ihintzarekin.

Egizu amets urontzian zoazela,
olatu artean dantzan,
zoriontasunera zaramatzen bidaian.

Amets egizu hegan dakizula
eta munduaren txikitasuna ikus dezakezula
zure hegaldi bakoitzean.

Egizu amets maitasunarekin,
lagun onen konpainiarekin,
bakardade hautatuarekin,
berdintasunarekin,
askatasunarekin.

Amets egizu, egizu amets,
baina, ez lorik hartu, ene maitea.